



Ebazpena, 2018ko maiatzaren 15ekoa, Hezkuntza Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearena. Ebazpen horren bidez 2017-2018 ikasturteko Haur Hezkuntza (2. zikloa), Lehen Hezkuntza eta DBH (1. eta 2. zikloak) egiten ari diren ikasleen garraiorako banan-banako diru-laguntzak eskuratzeko egin zen deialdiaren 6.4) atala esleitzen da behin-behinean.

Hezkuntza Saileko sailburuaren 2017ko abenduaren 28ko Aginduaren bidez, 2017-2018 ikasturteko Haur Hezkuntza (2. zikloa), Lehen Hezkuntza eta DBH (1. eta 2. zikloak) egiten ari diren ikasleen garraiorako banan-banako diru-laguntzak eskuratzeko deialdia egin zen (2016ko abenduaren 29ko EHAA).

Hezkuntza Saileko sailburuordearen 2018ko apirilaren 20ko Ebazpenaren bidez ebatzi zen behin betikoz aipatutako deialdia, 6.2) atalari dagokiona. Gero, maiatzaren 10ean, akatsen zuzenketa egin zen.

Aipatutako deialdiaren 6.4) atalean ezarrita dagoenaren arabera, deialdiaren 6.2) atalari jarraituta, eskabideak aurkezteko epea baino beranduago matrikulatutako ikasleek badute laguntza eskatzeko eskubidea.

Aipatutako deialdia arautzen duen Aginduaren 8. artikulua arabera,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa: Behin-behinean esleitzea deialdian araututako baldintzak betetzen dituzten ikasleen diru-laguntzak.

Bigarrena: Interesdunak jakinaren gainean egon daitezenean, deialdiaren behin-behineko esleipenaren zerrenden iragarpena egitea eta diru-laguntza kopurua eta hala dagokionean ukatzeko arrazoiak azaltzea "euskadi.eus" Web-guneko iragarki taula elektronikoan.

Hirugarrena: Behin-behineko esleipen honen kontra alegazioak egin edo agiriak aurkez ditzake eskatzaileak bere interesen defentsarako. Alegazioak 15 egun balioduneko epean egin beharko dira, iragarki hau argitaratzen den egunetik kontatzen hasita.

Laugarrena: Behin-behineko ebazpenaren kontrako alegazioak aurkezteko epea bukaturik, ebazpen hori behin betikotzat joko da, alegaziorik jaso ez duten eskarietarako. Administrazio eta Zerbitzuetako sailburuordeak bihurtuko ditu behin-behineko ebazpenak behin betiko, eta <https://euskadi.eus> webguneko iragarki-taulan argitaratuta jakinaraziko da.

Bosgarrena: Behin-behineko ebazpenaren kontrako alegaziorik aurkeztu bada, eta behar diren egiaztapenak eta izapideak egin ondoren, Administrazio eta Zerbitzuetako sailburuordeak behin betiko ebazpena emango du, 8.2 artikuluan agertzen diren datuak aipatuta, eta ebazpena <https://euskadi.eus> webgunearen iragarki-taulan argitaratuta jakinaraziko da.

Vitoria-Gasteizen, 2018ko maiatzaren 15ean.

Olatz Garamendi Landa
Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordea